

Gérard Zabarotz

*Oragarre,
Nafarroa
Beherea
(1920-2013)*

Aurkibidea

Biografia



Gérard Zabarotz 1920ko ekainaren 10ean sortu zen Oragarreko Jelsea etxean, hamaika haurridetarik zaharrena. 1947an ezkondu zen eta hiru seme ukan zituzten. Bere bizi guzian zurgina, segalaria eta orga eta errota egilea izan da. Bere lan tresna guziak etxeko tailerrean eduki izan ditu.

Zintak

ORG-001

- **Proiektua:** Euskal kultur erakundearen artxiboak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lekumberri, Terexa
- **Data:** 2008-12-12
- **Iraupena:** 64 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Haurtzaroa Oraharren 1920. hamarkadan

- **Erref:** ORG-001/001
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Gérard bizi den etxean sortu da. Eskolara abiatu zen 5 urte zituela eta egunero etxera etortzen ziren bazkaltzera. Larunbatetan, etxeratekoan, ogia eta komisioneak ekartzen zituzten herriko plazan kokatua zen epizeriatik. Epizeria hunek lau astoen bidez auzoetan pasatzen zen bere produktuen saltzeko etxez etxe.

2. Eskolak Oraharren 1920. hamarkadan

- **Erref:** ORG-001/002
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:01:30. **Bukatu:** 00:03:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Hiru eskola baziren, Zelai, Uhane eta Bartako auzoan. Bat mutikoen eskola 65 haurrekin, bestea neskeena eta hirugarrena neska-mutilak nahas-mahas.

3. Mistotasuna ala ez: gertakari bat

- **Erref:** ORG-001/003
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:03:16. **Bukatu:** 00:06:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa

Laburpena:

Gazteek 16 eta 20 urte artean zutela, herriko auzapezak ibilaldi bat eskaini zien herriko gazteriarri : bi autobus bete ziren. Erretorak sudurra sartu eta,

neskak autobus batean, mutilak bestean, ezarri zituen. Gazteak asaldatuak ziren eginmolde hortaz eta Elizaren jarreraz.

4. Katixima Oragarren

- **Erref:** ORG-001/004
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:06:06. **Bukatu:** 00:07:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa
- Euskara

Laburpena:

Gérard-ek katixima frantsesez segitu du serorekin. Bestalde, Oraharren apezak edo andere serorak zuten katixima emaiten. Garai hartako apeza Sabarots bat zen.

5. Mutil laborantxan

- **Erref:** ORG-001/005
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:07:33. **Bukatu:** 00:09:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak

Laburpena:

Orotara 11 haurride ziren, anai bat 6-7 hilabete zendu zen, beraz bizirik 6 anai eta 4 arreba. Hiru urtez mutil egon zen Gérard, 15 urte arte, auzapezaren etxean, funtsean sei anaiak hor egon dira, jabeek ez baitzuten haurrik.

6. Etxetiarrek Oraharren 1930. hamarkadan

- **Erref:** ORG-001/006
- **Iraupena:** 0:04:12. **Hasi:** 00:09:14. **Bukatu:** 00:13:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Ainitz etxetiar bazen Oraharren, Gérard Sabarots-ek izendatzen ditu. Oroit da nagusi guti zela.

7. Zurgin eta segalari : hastapenak

- **Erref:** ORG-001/007
- **Iraupena:** 0:03:49. **Hasi:** 00:13:26. **Bukatu:** 00:17:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

3 urtez mutil egon ondoan, Gérard Sabarots hasiko da bere zinezko lanbidean, segalari lanean, 17 urte bete eta. Lehenik Oraharreko nagusi baten etxean, bapurraz kurritzen zen sega-tresnarekin. Ikasi du besteeri so eginez eta arizanez. Esplikatzen dauku nola behar den artoski sega lama zaindu, xorroxtu, xuxen joan-arazi.

8. Segerian : zuraren prestatze eta segatze

- **Erref:** ORG-001/008
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:17:15. **Bukatu:** 00:19:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Segatu aitzin, zura behar zen prestatu, garbitu, xuxen ezarri sega-tresnan. Enborraren neurriaren araberrako taulak segatzen ziren eta baztertzen gapirioak, zurabeak edo beste egiteko. Gérard-ek arto idortegiak ere egiten zituen.

9. Enborraren laukitzea edo karratzea

- **Erref:** ORG-001/009
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:19:49. **Bukatu:** 00:21:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Arbola aurtiki eta, enborra karratua edo laukitua zen aizkoraz, arintzeko. Gero garraiatua zen idi pare batekin.

10. Segalaria arbola aurtikitzen

- **Erref:** ORG-001/010
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:21:16. **Bukatu:** 00:23:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Gérard arbol aurtikitzen arizan da, bakarrik, arriskuak hartuz, trontza-zerra aitzin, trenka segaz eta berdin trontzarekin. Aitarekin aurtiki behar zituen arbolak markatzen zituen.

11. Ilargiaren eragina arbola aurtikitzean

- **Erref:** ORG-001/011
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:23:48. **Bukatu:** 00:25:45

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Zura ez dadin "mugi" eta gogorra egon dadin, arbola beherapenean aurtikia da. Suko egurra ere, beherapenean moztua baldinbada eta ongi idortua, ongi erretzen da.

12. Zuraren idortzea

- **Erref:** ORG-001/012
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:25:45. **Bukatu:** 00:26:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Biziki garrantzitsua da zura idortzera uztea. Erori eta berehala, lekuan berean pausatzeraz utzi behar da. Segatu ondoan, berriz idortzera emaiten da.

13. Segalariak erabili zuhaitz motak

- **Erref:** ORG-001/013
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:26:51. **Bukatu:** 00:28:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Natura » Flora

Laburpena:

Gehienik haritza eta gaiztaina erabiltzen zen gehienik bainan ere besteak beste zuharra (zumarra) uztaien egiteko, lizarra belar mozteko edo peiteko tresnen bihurtzat.

14. Zuraren segatzea eta sega motak

- **Erref:** ORG-001/014
- **Iraupena:** 0:09:06. **Hasi:** 00:28:05. **Bukatu:** 00:37:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Gérard Sabarots-ek zehazki esplikatzen du nola segatzen zuen, sega mota desberdinak erabiliz. Lehenik, sega zirkularia, izigarriko arramantza edo soinua egiten zuena. Gero, bigarren sega mota : sega alemana (scie à

rubans). Eta zura luzeegi baldin bazen, "scie à violon" izenekoa erabiltzen zuen, zura soka tintatu batez aitzinetik markatua zelarik. Soka hau Gérard-ek berak prestatzen zuen artilea baliatuz : lastoa erretzen zuen eta beltz horrekin artilea beltzatzten. Orain, soka horiek tinta urdin bat daukate. Gapirioentzat, sega handiak erabiltzen ziren, beste lan batzuentzat aldiz ttipiangoak.

15. Bezeroak

- **Erref:** ORG-001/015
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 00:37:11. **Bukatu:** 00:40:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Gérard-ek harreman zuzena zuen bezeroekin. Bezeroak edo klienteak euskalde guzietarik heldu ziren : izendatzen ditu, erranez nungoak ziren.

16. Baporezko sistema sega ibilarazteko

- **Erref:** ORG-001/016
- **Iraupena:** 0:07:34. **Hasi:** 00:40:36. **Bukatu:** 00:48:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Bere gain hasi aitzin, Gérard Monjolosen egon zen langile segeria baten baporezko makinaren beroarazten, alabaina garai hartan bapore sistemak baitzuen sega ibilarazten. Bost bapur mota ezagutu ditu. Pertsona bat behar zen geldidageldia tresnaren aitzinean : lehenik egurra ezarri, urez bete, sua beti azkar atxiki, hots kurriarazi eta entretenitu.

17. Udako lana : ogi joitea

- **Erref:** ORG-001/017
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:48:10. **Bukatu:** 00:50:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak
- Baserria » Baserriko lanak

Laburpena:

Ogi joiteko mekanikarekin ibiltzen zen Gérard, uda partean. Goizean goizik hasirik, laguntza frango bildurik, bakoitzak eginbide bat zaukela. Xeheki kondatzen dauku nola iragaiten zen eguna eta lana. Hastapen batean, joiteko tresnak baporearekin funtzionatzen zuen, ondotik "moissonneuse-batteuse" delakoarekin aritu da Gérard.

18. Baporezko sistemaren desagertzea

- **Erref:** ORG-001/018

- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:50:45. **Bukatu:** 00:51:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

1939-1945ko gerlatik landa, laster desagertu da bapurra sistema.

19. Tailu gider eta arrastelu egile

- **Erref:** ORG-001/019
- **Iraupena:** 0:13:10. **Hasi:** 00:51:38. **Bukatu:** 01:04:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Arotzak
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Segalaritza lanetik kanpo, eskulan berezi batean trebatu da Gérard : tailu gider eta arrastelu egiten, jadanik aitatxik praktikatu eskulana. Tailu giderrentzat urritza erabiltzen zuen, arrastelu zirientzat arkazia gaineratekoa lizarrez zelarik. Kondatzen digu nola, urritzak sasian hautaturik lekuko oihanzainekin tratuak eginez, giderrak labean kixkailtzen zituen (auzoko labeak izendatzen ditu), metan ematen eta larrutzen. Arrasteluak plazan saltzen zituzten, mezatik landa : klientek ez baitzituzten giderrak nahi bezain zuzenak, molde berri batez landu zituen Gérard-ek, eskuko ziba erabiliz ("toupie" portative").

20. Uztaien egitea : lan berezia

- **Erref:** ORG-001/020
- **Iraupena:** 0:10:54. **Hasi:** 01:04:48. **Bukatu:** 01:15:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Arotzak
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Uztai egitea lan berezia eta fisikoa zen, bi pertsonen presentzia galdegiten zuena : bere andreak Gérard laguntzen zuen. Aska handi batean, dozena bat taula eman, urez bete, berotu. Ondotik, zurak moldatzen ahal ziren. Dena eskuz egiten zen : muinoak, arraioak, zateak. Ondotik, arotzak burdinazten zuen errota. Tresna bereziak erabiltzen zituen : burdin xixela, zur xixela, jorraia, konpaza berezia errotendako. Errotek bazituzten 10 edo 12 arraio, zateak araberakoak ziren.

21. Uztaien egiteko zur motak

- **Erref:** ORG-001/021

- **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 01:15:42. **Bukatu:** 01:16:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Arotzak
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Natura » Flora

Laburpena:

Muinoak haritzez ziren, arraioak arkaziaz eta zateak haritzez. Zumarra ere behar zen.

22. Orga eta tunbero egile

- **Erref:** ORG-001/022
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 01:16:24. **Bukatu:** 01:18:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Arotzak
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Lan zaila baitzen uztaien egitea, hondarrean orgak eta tonberoak egiten zituen Gérard-ek. Trakturrekin erabiltzeko gisan, luzeagoak eta largoagoak egiten zituen.

23. Itzainak eta segeriak

- **Erref:** ORG-001/023
- **Iraupena:** 0:03:51. **Hasi:** 01:18:25. **Bukatu:** 01:22:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Itzainen beharra zuten zuraren garraiatzeko oihanetik segeriara eta segeriatik etxera. Hortarako zuten aitasemek deliberatu segeria bat etxean muntatzea. Gérard Sabarots-ek ezagutu dituen beste segeriak izendatzen ditu.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-20

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com